

**2009KO AZAROAREN 13AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hamahirua

**HILABETEA:** Azaroa

**URTEA:** Bi mila eta bederatz

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatz

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe  
Fernando Boada González  
Jon Kortaberria Lasa  
Begoña Lasa Royuela  
Julio Herreros Serna

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2009ko urriaren 30eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute akta zeresanik ez dagoelako.

**2.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA.** Beasaingo udal eraikin eta lokalen garbiketa zerbitzua kontratatzeko deialdia egitea eta baldintza pleguak onartzea.

2009ko azaroaren 11ko zerbitzu batzordeak proposatuta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.-** “Udal-lokalen eta eraikinen garbiketa zerbitzua” kontratatzeko deialdia egitea, lehiaketa arautuko duen baldintza tekniko eta administratiboen pleguak onartuz.

1.- Xedea:” Udal-lokalen eta eraikinen garbiketa zerbitzua” kontratatzea.

2.- Prozedura: irekia publizitatearekin

3.- Aurrekontua: 18,64 €/orduko, BEZ barne.

4.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian ([www.beasain.net](http://www.beasain.net)). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

5.-Behin betiko bermea: Adjudikaziodunak kontratua sinatu aurretik aurkeztu behar duen bermea esleipenaren aurrekontuko %5aren balioa duena izango da, BEZ kanpo.

6.- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

7.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 21 egunetan.

8.- Adjudikazio irizpideak: proposamen ekonomikoa:

- Proposamen ekonomikoa: 0ti 50 punturaino.
- Eskaintzaren kalitate teknikoa: 0tik 25 punturaino.
- Hobekuntzak: 0tik 25 puntura.

9.- Klasifikazioa: U Taldea, 1 Azpitaldea, B Kategoria.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

**3.- KONTRATUA ALDATZEA.** Lorategi eta parkeen mantentze-kontratua aldatzea.

Ezagutzera eman da, 2009ko azaroaren 11ko zerbitzu batzordeak egindako proposamena, hain zuzen ere, udal lorategiak mantentze zerbitzuaren kontratua aldatzeari buruzkoa.

Gaia eztabaidatu ondoren, bildutakoek, Fernando Boada jaunak izan ezik, esan duelako abstenitu egingo dela proposamenak enpleguan eragina duelako, erabaki hau hartu dute, GOROLDI, S.L.rekin sinatuta dagoen, Beasaingo udalerriko parke, lorategi, gune berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzuari dagokion kontratua aldatzea, 2010eko urtarriletik aurrera. Aldaketa honetan datza:

- Zerbitzutik, B motatako langile bat erretiratzea.
- Azpiegitura gastuak murriztea.
- Laneko arropa-gastua murriztea.
- Zerbitzuari atxikitutako makinaria berrantolatzea.
- Ibilgailuen amortizazio epea luzatzea.
- Gastu orokorrak eta industria onuradunak murriztea.

Horrek guztiak suposatzen du, 2010etik aurrera, Udalak GOROLDI, S.L. enpresari ordaindu beharreko kopurua, 270.165,36 € izango dela. Sinatutako kontratuarekiko, 19.808,39 € (6,9%) gutxiago.

#### **4.- ESKAERA ETA GALDERAK.**

Eskaera eta galderen atalean Alkateak honelako informazioa eman du:

ASTIGARRETAKO ERREGIDOREA. Alkateak adierazi du, orain arte izandako Antonio Etxaniz erregidorearen aldaketa egingo dela eta bizilagunek hautatuko dutela erregidore berria.

#### **MONOLITOA.**

Alkate jaunak (EAJ): “Azaroaren 23an, orain zortzi urte Anbulategiko gurutze-bidean erail zituzten ertzainen oroimenez, Zeramika taldeak egindako monolitoa jarriko da. Gonbidapena, Ana Isabel Arostegi eta Francisco Javier Mijangos ertzainen familiari eta Ertzaintzari bidali zaio eta halaber herritar guztiei dei egiten diegu ekintza horretan parte hartzeko.”

#### **2010.EKO AURREKONTUA**

Alkateak, gobernu batzordeko partaideei 2010. ekitaldiko aurrekontuaren zirriborroa banatu die aztertu dezaten, plantilarekin batera 2009ko abenduaren 18ko Plenoan tratatuko delako.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera bederatziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.